LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Bigarren Hiruhilekoa 2021

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honek, 2021eko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa 4
Lanbiden erregistratutako langabezia 5
Afiliazioa Gizarte Segurantzan 6
Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) 8

Testuinguru Ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) datuak, urte arteko % 18,1eko hazkundea erakusten du 2021eko bigarren hiruhilekorako eta % 6,7ko hazkundea aurreikusten du 2021 urte osoari dagokionez

Eustaten datuen arabera, urteko bigarren hiruhilekoan EAEko BPGaren urte arteko aldakuntza-tasa +% 18,1ekoa izan da. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokienez, EAEko BPGa %6,7 haziko da 2021 urte osoari dagokionez, eta 2022an hazkunde tasa %5,7 izango da.

Barne eskariak jarraituko du izaten EAEko ekonomiaren hazkundearen eragile nagusia, eta kontsumo pribatua hazi egingo da geroratutako eskariaren xurgatze efektuaren ondorioz. Bestalde, inbertsioa kanpoko testuinguru hobeak eta baikortasun handiagoak bultzatuko dute.

Ekoizpen adar guztiek ekarpen positiboa egingo diote EAEko BPGaren hazkundeari, bai 2021ean bai 2022an. Industria sektorea izango da hazkundearen eta susperraldi ekonomikoaren buru 2021ean. Hurrengo urtean, zerbitzuen sektoreak egingo dio ekarpenik handiena hazkunde ekonomikoari.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza , "Koiuntura DI-DA batean 2021-eko uztaila" txostena

Espainia eta Euroguneko ekonomiei dagokienez, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspena +%4,4koa da 2021 urterako, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Espainiarako urte berdinerako egindako aurreikuspena +%6,4koa izanik. 2022 urterako egindako aurreikuspenak Eurogunerako eta Espainiarako +%4,4 eta +%4,7koak dira, hurrenez hurren.



Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2021-eko uztaila" txostena

Munduko Bankuaren azken txostenaren arabera, ekainean argitaratua, ekonomia globala %5,6 haziko da 2021ean. Hazkunde hori ekonomia nagusietako batzuen dinamismo handiaren ondorio izango da, hala nola Txinarena eta AEBena. Hala ere, garatzeko bidean dauden eta azaleratzen ari diren herrialde askok Covid-19aren pandemiaren ondorioen eta txertaketaren atzerapenaren zamarekin jarraituko dute. Dena dela, eta ekonomiaren susperraldia gorabehera, munduko BPGaren mailak pandemiaren aurretik zeudenak baino txikiagoak izango dira.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko % 5,9ko jaitsiera izan du urteko bigarren hiruhilekoan; -4.892 gizonezko eta -2.770 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** jaitsi egin da 2021eko bigarren hiruhilekoan (7.662 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 122.359 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera % 5,9koa izan da eta urte arteko jaitsiera % 15,3koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua -4.892 pertsonatan jaitsi da gizonezkoen artean eta -2.770 emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 52.846 pertsonatan kokatu da eta 69.513 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-2.585); ondoren, 35-44 urte bitartekoen artean (-2.273); 45-54 urte bitartean (-1.498); 16-24 urte bitartean (-1.154) eta 55-64 urte bitartean (-152).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Araba izan da langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen lurraldea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-7,4%; -1.615). Ondoren, Gipuzkoa (-% 6,6; -2.281) eta Bizkaia (-% 5,1; -3.766).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzerritarren kopurua % 8,1 jaitsi da eta bertako langabetu kopurua -% 5,5 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 19.419 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 102.940 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duen taldea Lanbide Heziketako ikasketak dituztenena izan da (-%7,5); jarraian, Batxilergo ikasketak dituztenen taldea (-%6,7); oinarrizko ikasketak dituztenen taldea (-%5,8) eta unibertsitate ikasketak dituztenen taldea (-%3,4).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza (-1.030); (ii) Janari eta edarien zerbitzuak (-862); eta (iii) enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (-722). Langabetu kopurua igo den hamar jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: (I) Hezkuntza (+434); (ii) Finantza zerbitzuak (+31); eta (iii) Herri Administrazioa eta defentsa, derrigorrezko gizarte segurantza (+24).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 966.373 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 1,2 gehiago

EAEn 2021eko bigarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 966.373 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino % 1,2 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 2,5 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren % 52a gizonezkoak dira eta % 48a emakumezkoak (aurreko hiruhileko datu berdinak).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (% 50,1). Gipuzkoan, % 33,5ekoa izan da eta Araban % 16,4koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 4.416 pertsonatan igo da afiliatu kopurua; Gipuzkoan +4.080 eta Araban +2.817.

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, bigarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (% 17,7); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (% 14,1); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,3). 2021eko bigarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (+2.948); (ii) Manufaktura industria (+2.585); eta (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (+2.214). Jaitsiera handiena jasan duten jardueren artean, ondorengoak daude: (i) Hezkuntza (-1.557); (ii) Ostalaritza (-718); eta (iii) Herri Administrazioa eta Defentsa, Gizarte Segurantza (-401).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua % 5,7 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 72.768 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua % 7,5ekoa da, afiliatu autoktonoena %92,5ekoa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa % 5,8 hazi da eta emakumezkoen afiliazioa +% 5,5. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa %9,9 igo da Araban, +%5,3 Gipuzkoan eta +%4,5 Bizkaian.

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Bigarrengo hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua % 15,4 hazi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 208.067koa izan da

2021eko bigarrengo hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 110.911koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 15,4 gehiago. Sexuari dagokionez, gizonezkoen artean % 18,2ko hazkundea izan da eta emakumezkoen artean % 12,5ekoa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen % 42,0k derrigorrezko ikasketak ditu, % 22,2k Batxilergo ikasketak, % 18,1ek unibertsitate ikasketak eta % 17,0k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2021eko lehenengo hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, % 27,8ko pisuarekin; 35-44 adineko taldeak jarraitzen dio (% 22,9).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen % 83,6a bertakoa da eta % 16,4ak atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhileko portzentajea baino 1,3 puntu altuagoa). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (% 45,8), Europar Erkidegokoak eta ez erkidegokoak (% 20,2) eta Afrika iparraldekoak (% 14,5).

Bigarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopurua**ri dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 208.067 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 1,9 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 16,4 hazi da kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdinak jarraitzen du: sinatutako kontratuen % 8,6 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 2,1 puntu baxuagoa) eta % 91,4 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik % 37,9 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,1 puntu altuagoa).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Bizkaian kontratuak % 12,3 hazi dira, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; Araban % 24,4 hazi da kontratazioa eta Gipuzkoan % 18,4 hazi da. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (% 50,2; 104.463); jarraian, Gipuzkoa (% 29,8; 62.010) eta Araba (% 20,0; 41.594).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) manufaktura-industria (% 17,1); (ii) merkataritza (% 13,1); (iii) osasun-jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 12,6) eta (iv) administrazio jarduerak (% 10,1). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (% 24,9) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 20,4).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa % 10,3koa izan da eta enplegu tasa % 50,5koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** % 50,5koa izan da (% 54,9 gizonezkoen kasuan eta % 46,5 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 944.300ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 15.100 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 492.300ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino % 1,4 gehiago) eta 452.000ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino % 1,8 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (% 77,5), 401.700 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (% 23,0), 42.100 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 25 urte azpikoena (+% 6,0).

Lurralde Historikoei dagokienez, Araba izan da enplegu tasarik handiena izan duena (% 52,3), jarraian Gipuzkoa (% 52,1) eta Bizkaia (% 49,1). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan erregistratu da hazkunde handiena (+% 2,2)

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (% 72,1). Ondoren, Industria sektorea (% 21,6), Eraikuntza sektorea (% 5,5) eta Lehen sektorea (% 0,8).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen % 69,9k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta % 29,2k aldi baterako kontratuak. **Kontratuen partzialtasuna**ri dagokionez, kontratuen % 79,8 lanaldi osokoak izan dira eta % 20,2 lanaldi partzialekoak.

Bigarrengo hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** % 10,3ekoa izan da (% 10,1 gizonezkoen artean eta % 10,5 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 108.600 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 7.100 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan % 6,2 murriztu da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan % 6,0 murriztu da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (% 7,5); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (% 11,8) eta 16-24 urte bitarteko taldea (% 25,0). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan murrizketa handiena izan duen taldea 25-44 urte bitartekoena izan da (-% 8,3); 16-24 urte bitartekoen taldean % 10,2 hazi de langabetu kopurua.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (% 8,2), jarraian Araba (% 11,1) eta Bizkaia (% 11,4). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua lurralde guztietan murriztu da; gehien Gipuzkoan murriztu da (-% 9,6).

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen % 44,6k bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, % 29,2k oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, % 26,3k goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen % 74,6 bertakoak dira, atzerritarrak, beraz, % 25,4.